



INDAR BAT GARA GU. Emakume* Abertzaleon VII. Topaketen ondorioak

Ibilian sortu ditugu emakume* abertzale eta feministontzako topalekuak, Bilguneak. Ibilian eraiki dugu gure komunitate feminista. Aldatzen joan gara, gure herria aldatu ahal izateko, gure bizitzen protagonista bihurtu nahi izan dugulako. Eta gaur, atzo baino indartsuagoak gara, elkarrekin. Emakume Abertzaleon VII. Topaketa Feministak ere horren erakusle izan dira, 500dik gora elkartu gara.

Boteretze feministan sakontzeko aldagai askoz aritu gara, besteak beste, autoestimuz, ahalduntzeaz, eskubideez, interesez, aukereaz, kontrolaz, intzidentzia politikoaz, antolakuntzaz, erakundetzeaz, eta nola ez, Mugimendu Feministaren osasunaz. Gaur, atzo bezala, mugimendu feminista boteretu behar dugu. Ezinbestekoa da feministon arteko aliantzak indartzea; eta horretarako, bide eman behar diogu belaunaldien arteko elkarrizketak sustatzeari, mikropolitikari eta aldagai afektiboari arreta jartzeari, pribilegioak kudeatzeari, plazerari, gure bizi prozesu eta helburuei egokitutako konpromisoari, militantzia osasuntsuari eta ezagutza kolektiborako sareak sendotzeari.

Elkarrekin sortzen dugun aldaketarako hauspoa da indarra. Ez dugu botere-gune hegemonikoetako kuota soil bat nahi. Ez dugu goitik behera inposatzen den boterea nahi. Emakumeon miseria iraunarazten dituzten egiturak eraldatzeko nahi dugu boterea, botere logikak guztiz aldatzeko; gure eremu intimoenetik hasita, gure bizitzako alor guztietan burujabe izatea ahalbidetuko diguna, botereguneak eskuratuz eta gurea eraikiz lortuko dugu hori.

Iparra argi dugu: Euskal Herriaren burujabetza feminista. Eta hasiak gara hura ezaugarritzen, harantz eramango gaituen trantsizioa hauspotzen eta eremu eremu boteretze feminista artikulatzen. Hori horrela izanik, bi erronka nagusi ditugu: batetik, Euskal Herriaren burujabetza feminista definitzeko eztabaida soziala sustatzea, betiere, urgentziazko prekarizazio egoerei aurre egitea alde batera utzi gabe, noski. Bestetik, intzidentzia politikoa erdiesteko lidergo kolektiboak sortzea.

Horrenbestez, aurrera begira, erronka horiek erdiesteko honakoak dira proposatzen ditugun prozesuak:

1. Lidergo kolektibo feministak osatzea.

Hasteko, emakumeek geure bizitzak aldatzeko protagonista eta subjektu politiko bilakatzea. Hori horrela izanik, jarraituko dugu herrietan autoantolakuntza, eta jabetze zein ahalduntze prozesuak bultzatzen. Bestalde, mugimendu feminista politikoki aitortzeko prozesuak martxan jarriko ditugu. Egun, Euskal Herrian dagoen Euskal Herrian dagoen indar feminista guztia ez da taldeetan metatzen eta, horregatik, berebizikoa ikusten dugu askotariko eremuetan jarduten duten feministak saretuz, intzidentzia politikoa areagotzea helburu duen gune egonkor bat sortzea: herri gisa pentsatu eta eragiteko, lehentasunak markatu eta urgentziazko egoerei irtenbideak proposatzeko baina, era berean, burujabetza feminista Euskal Herrian zer den eta nola lortu pentsatzen jarduteko. Azkenik, norbanakoa, taldea eta proiektuaren arteko zaintza aintzat hartuko dituen jardun feminista bermatzeko baldintzak eta espazioak sortzen jarraituko dugu.



Hori guztia gauzatzeko, tresna aunitz ditugu: emakume abertzale feministen sarea, Bilgune Feminista bera, Emakumeen Mundu Martxa, Euskal Herriko Jardunaldi Feministak bezalako espazioak, hiriburuetako koordinakundeak, Eragingune Feminista...

2. Herritar guztientzako bizitza duina

Bizitza duinak ahalbidetzeko herri mugimendu, mugimendu sozial, sindikatu eta jakintza esparru ugarien arteko elkarlana sustatzea ezinbestekoa da. Bizitza onaren eraikuntzan elementu ugari kontuan hartuko ditugu: oinarrizko beharrak asetzeko proposamen praktikoak egitea; pobrezia eta urgentziazko egoerei erantzutea; bizi baldintzen hobekuntzan erresistentzia mekanismoak martxan jarri eta alternatibak eraikitzea; aberastasunaren banaketa; bakearen eraikuntza kolektiboa; gorputzen gaineko kontrolerako politikak aldatzea; elikadura burujabetza eta ingurumenaren zaintza; denboraren banaketa justu eta parekoa; zaintza eta etxeko lanak onartzea eta banatzea; heteroaraua eta familia nuklearra zalantzan jarri eta elkarbizitza eta harreman eredu berriak ikusaraztea; herria kulturalki askotariko, laiko eta solidarioa; hezkidetzak bidelagun izatea; euskaraz bizitzeko urratsak ematea...

Azken honetarako ere baditugu hainbat tresna: Eskubide Sozialen Karta, Emakumeen Mundu Martxa, Ekonomia Feministan jarduten dutenekin aliantzak...

3. Gatazk(e)n konponbidea

Askotariko indarkeriek sortutako gatazketatik konponbiderako urratsak ematea, batez ere, gatazka politiko armatua eta indarkeria sexista. Baina badira beste hainbat ere: murrizketak, arrazakeria, matxismoa, heterosexismoa, helduen nagusitza, eurozentrismoa, esklaboen salerosketa, kolonialismoa eta inperialismoa. Horretarako, batetik, bakegintzan eragin behar dugu. Horrela, gizarte zibila osatzen dugunok bakea, segurtasuna, memoria, justizia, aitortza, erreparazioa eta gizarte zibilaren beraren osaketa kolektiboki birdefinitu behar ditugu. Bide honetan, preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea exijitzen dugu. Bestetik, indarkeria sexistari aurre egiteko, beharrezkoa da bitarteko berriak eskaintzea, erakunde publikoetan proposamenak egitea eta koordinatzea, eta baita autodefentsa bultzatzea ere.

Besteak beste, Foro Sozial Iraunkorra eta Emakumeen Mundu Martxa ditugu prozesu honetan gune nagusi.

4. Osatze feminista

Gure gorputzetan, komunitatean, lurraldean zein pentsamenduan eragin duten arazoan, nagusiki patriarkatuaren, gatazka politiko armatuaren zein klase borrokaren saminak, minak, orbanak, zauriak... sendatzea prozesu indibidual, kolektibo eta politikoa da. Hori horrela izanda, espazio desberdinetan osatze prozesu paraleloak bideratzea proposatzen dugu.

Bide honetan baditugu hainbat gune: Bilgune Feministako osatze lan taldea, nazioarteko aliantza feministak, aliantza osatze prozesu kolektiboetan dauden subjektuekin (emakume preso ohiak, indarkeria sexista jasandakoak, sexu abusuak bizitu dituztenak, emakume torturatuak...).



+



5. Erakundetzea

Komunitatea antolatzeko modua, familia eredia, bizimodua, gure beharrak... birpentsatzeko ahalegina egin dugu eta estatua, esturktura komunak eta horiek sostengatzeko erak berregin behar direla uste dugu. Horretarako, politika feministak sustatzeko aliantzak behar ditugu tekniko eta politikoekin; bestelako erakundeekiko elkarlanerako aukerak landuko ditugu eta erabakitze eskubidearen ildoan eta independentziarako bide orrian, ikuspegi feminista txertatzea izango dugu helburu.

Euskal Herrian, 2017ko maiatzaren 12an

- Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahaldun eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...)



INDAR BAT GARA GU. Resumen de las VII. Jornadas de Mujeres* Abertzales

Desde Bilgune Feminista de Euskal Herria hemos organizado las VII. jornadas de mujeres* abertzales y feministas para construir entre todas, una comunidad feminista. Nos hemos transformado, para poder cambiar nuestro pueblo, para convertirnos en las protagonistas de nuestras vidas. Hoy somos más que ayer y con mucha más fuerza y estas jornadas han sido muestra de ello, habiendo acudido más de 600 mujeres*.

Hemos profundizado en las diferentes variables del empoderamiento feminista: la autoestima, los derechos, intereses, posibilidades, control, incidencia política, organización, institucionalización y la salud y el estado del movimiento feminista. Hoy, tal como lo hacíamos ayer, debemos empoderar al movimiento feminista. Es imprescindible reforzar y fortalecer las alianzas feministas; para ello debemos impulsar el diálogo de las diferentes generaciones, prestar atención a la micropolítica y a las variables afectivas, gestionar los privilegios, el placer, el adecuación del compromiso a nuestro proyecto de vida y objetivos, una militancia saludable y fortalecer las redes para el saber colectivo.

La fuerza es lo que nos impulsa al cambio que estamos realizando entre todas. No queremos una sencilla cuota hegemónica de los espacios de poder. No queremos un poder que se imponga de arriba abajo. Queremos el poder para cambiar las estructuras que perpetúa la miseria de las mujeres, para cambiar por completo su lógica; posibilitando ser dueñas de nosotras mismas, empezando desde nuestros espacios íntimos hasta todas las facetas de nuestra vida.

Tenemos claro el objetivo: la soberanía feminista de Euskal Herria. Hemos empezado a caracterizarlo, a articular el empoderamiento feminista de ámbito en ámbito, a realizar la transformación que nos lleve a alcanzar nuestro objetivo. Pero para ello nos encontramos ante dos grandes retos: Crear un espacio de debate social para definir el concepto de soberanía feminista en Euskal Herria. Sin dejar de lado, por supuesto, las situaciones de precariedad más urgentes. Debemos crear, asimismo, un liderazgo colectivo feminista que sea capaz de aunar las fuerzas de todo el Movimiento Feminista y que este devenga del empoderamiento de las mujeres* y deberá contar con un Movimiento Feminista fuerte que cuide los lazos entre lo individual, lo colectivo y el proyecto en sí mismo.

Por lo tanto, estos son los procesos que proponemos para hacer frente a los retos arriba enumerados:

1. Formar liderazgos colectivos feministas

Para empezar, las mujeres debemos conseguir ser las protagonistas de nuestras vidas y convertirnos en sujetos políticos. Para ello, seguiremos organizándonos entre nosotras e impulsando procesos de empoderamiento, además de llevar a cabo procesos de reconocimiento político del movimiento feminista. Hoy en día, no se acumula toda la fuerza y el potencial feminista en los grupos existentes en Euskal Herria. Por eso, es imprescindible crear un espacio permanente que tenga como objetivo aumentar la incidencia política, mediante una red de feministas que trabajen en diferentes ámbitos: para pensar y actuar como pueblo, para marcar las



prioridades y proponer respuestas a situaciones de urgencia, pero a su vez, para definir y cómo conseguir la soberanía feminista en Euskal Herria. Por último, seguiremos creando espacios y condiciones que garanticen una actuación feminista dando importancia al cuidado entre las personas, el grupo y el proyecto.

Además, contamos con numerosas herramientas para avanzar en el camino descrito mas arriba, como lo son la red de mujeres* abertzales y feministas, el propio bilgune Feminista, la Marcha Mundial de las Mujeres, espacios como las Jornadas Feministas de Euskal Herria, las coordinadoras de las capitales, Eragingune Feminista...

2. Una vida digna para todas las personas

Si queremos garantizar un modo de vida digno para todas las personas, debemos impulsar el trabajo colectivo y cooperativo del movimiento popular, movimiento social, sindical y diferentes espacios de sabiduría para posibilitar una vida digna. Para lo que consideraremos varios ejes como: Realizar propuestas prácticas para cumplir las necesidades básicas, identificando la pobreza y las situaciones de urgencia y proponiendo acciones para mejorarlas; crear alternativas para poner en marcha mecanismos de resistencia para mejorar nuestra calidad de vida; reparto de la riqueza; construcción colectiva de la paz; cambiar las políticas de control sobre nuestros cuerpos; soberanía alimentaria y cuidado del medioambiente; un reparto justo y equitativo del tiempo; repartir y reconocer los trabajos de cuidados y domésticos, poner en duda la heteronormatividad y la familia nuclear y visualizar nuevos modelos de relaciones de convivencia; nuestras vidas a salvo de la violencia patriarcal; una Euskal Herria diversa, laica y solidaria; coeducación y euskara.

Para esto, contamos, también, con cantidad de herramientas: La Carta de los Derechos Sociales, la Marcha Mundial de las Mujeres, alianzas con quienes actúan en torna a la economía feminista...

3. Resolución del (los) conflicto(s)

Hay que dar pasos en la resolución de los conflictos producidos por diferentes tipos de violencia, sobre todo el conflicto político armado y la violencia sexista. Aún así, existen muchas otras formas de violencia: los recortes, el racismo, el machismo, el heterosexismo, predominio del poder adulto, la compraventa de esclavos, el colonialismo y el imperialismo. Con lo que será fundamental una redefinición colectiva de la paz, por parte de la sociedad civil tanto como de la seguridad, la memoria, la justicia, el reconocimiento, la reparación y la propia construcción de la sociedad civil. En este sentido exigimos la vuelta a casa de los y las presas políticas vascas y las personas refugiadas y deportadas. A la vez que ponemos mecanismos para hacer frente a la violencia sexista es necesario ofrecer recursos nuevos, realizar propuestas en las instituciones públicas y coordinarlas e impulsar la autodefensa feminista, reflexionando sobre la violencia intersistémica, y repensando estrategias para hacer frente a dichas violencias.

Contamos para este proceso, entre otros, con el Foro Social Permanente y la Marcha Mundial de la Mujeres.



4. Reparación feminista

Es el proceso de reparación individual, colectivo y político del dolor, la pena, heridas, las cicatrices, etc. que tenemos en nuestros cuerpos, comunidad, territorio y pensamientos a causa del patriarcado, el conflicto político armado y la lucha de clases. Por este motivo, proponemos procesos de reparación paralelos en diferentes ámbitos.

En este sentido contamos con herramientas como el grupo de trabajo sobre reparación feminista creado en Bilgune Feminista, alianzas internacionales, alianzas con sujetos que están en procesos de reparación colectivos (expresas, mujeres que han sufrido violencia sexista o abusos sexuales, torturadas...).

5. Institucionalización

Hemos realizado el esfuerzo de reflexionar sobre el modo de organizar la comunidad, el modelo de familia, nuestras necesidades, etc. Creemos que debemos repensar el estado, las estructuras comunes y las formas de sostenerlas, impulsando alianzas feministas en área técnica y política; analizando opciones de trabajo colaborativo con Udalbiltza, Colectividad Municipal de Ipar Euskal Herria, diputaciones y municipios; añadiendo la perspectiva feminista en el espacio del derecho a decidir y analizando las posibilidades de las instituciones y las nuevas estructuras públicas.

En Euskal Herria, a 12 de mayo del 2017

* Seguimos utilizando la categoría mujer porque consideramos que aún es válida para incidir políticamente en nuestra realidad actual. Sin embargo, más allá del binomio marcado por el sistema de sexo-género somos vivencias, capacidades e identidades muy diversas (bolleras, trans...)